

**Sektore pribatuan
sexuagatiko bereizkeria-egoeretan dauden
herritarrei arreta emateko zerbitzua**

TXOSTENA 2014

SARRERA.....	3
1. MARKO OROKORRA	4
1.1 Erantzundako kontsultak	5
1.2 Artatutako kexak eta salaketak.....	6
2. MARKO JURIDIKOA ETA IKERTUTAKO KEXA ETA SALAKETEN TRATAMENDUA.....	8
2.1 Komunikabideak eta publizitatea.....	9
2.2 Lan-eremua	15
2.3 Kirol-eremua.....	17
3. BIDERATUTAKO ETA GUTXIETSITAKO KEXA ETA SALAKETAK.....	19
3.1 Bideratutako eta gutxietsitako kexak.....	19
3.2 Bideratutako eta gutxietsitako salaketak	20
4. KOORDINAZIO- ETA LANKIDETZA-MEKANISMOAK	21

SARRERA

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, otsailaren 16ko 3/2012 Legearen 70. artikuluan ezarritakoa betetzeko, 2014. urteko txostena egin du; bertan, artatutako kasuen zerrenda jasotzen da, sektore pribatuan sexu-bereizkeriagatik herritarrei arreta emateko. Txostenean, aldi berean, ukatutako kexa eta salaketen zerrenda ere jasotzen da, horretarako motiboekin batera.

Txostena lau ataletan egituratzen da, eta, lehenengoan, sektore pribatuan sexu-diskriminazioagatik herritarrei arreta emateko jarduketaren esparru orokorraren berri ematen du eta artatutako kontsulta, kexa eta salaketen datu orokorrak jasotzen ditu. Bigarren atalean, izapidetutako kexa eta salaketei buruzko informazioa jasotzen da, bai eta eraginpeko eremu bakoitzeko esparru juridikoa ere. Hirugarren atalean, gaitzetsitako kexa eta salaketen berri ematen du eta, kasu bakoitzean, beste instantzia eskudun batzuetara bideratu direnen berri, eta, azkenik, laugarren atalean, beste erakunde eta instituzio batzuekiko koordinaziorako eta lankidetzarako mekanismoak zehazten dira.

Ez da irizpenik eman 4/2005 Legearen 71. artikulua aipatzen duen Lan Prozedurari buruzko Legearen 95.3. artikulua gainean.

1. MARKO OROKORRA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea sortzea xedatu zen, sexuagatiko bereizkeria-egoeretan herritarrek defendatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa betetzea sustatzeko organo gisa.

Otsailaren 16ko 3/2012 Legeak –horren bidez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea eratzeke Legea aldatu ziren– Defentsa Erakundea ezabatu eta bere edukiak, eskumenak eta funtzioak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari esleitu zizkion; hala ere, funtzioak egokitu egin zituen, adskripzio organiko berriaren arabera, eta, beraz, gaur egun honako hauek dagozkio:


- a) Ikerketak egitea, ofizioz edo alderen batek eskaturik, sektore pribatuan ustez gertatutako sexuagatiko zuzeneko edo zeharkako bereizkeria-egoerak argitzeko.
- b) Negoziatzeko bideak ematea eta gomendioak egitea pertsona fisiko nahiz juridikoei, sektore pribatuan sexuagatiko bereizkeria-egoerak edo ekintzak zuzentzeko, eta gomendio horien jarraipena egitea, betetzen diren ala ez ikusteko.
- c) Herritarrei aholku ematea, sektore pribatuan sexuagatiko bereizkeria-egoerak egon daitezkeenean.
- d) Bitarteko izatea jazarpen sexistaren kasuak konpontzen laguntzeko.
- e) Egiten dituen jardueren eta ikerketen berri ematea, eta txostenak eta irizpenak egitea, lege honetan xedatutakoarekin bat.
- f) Lan-arloko agintaritzarekin lankidetzan jardutea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan bereizkeriaren aurkako lan-arauak betetzen diren begiratzeko.

1.1 Erantzundako kontsultak

Herritarrek informazioa eta aholkularitza eskatu edo kexak eta/edo salaketak aurkeztu ditzakete, dela aurrez aurre, dela telefonoz edo posta elektronikoz edo posta arruntez.

2014an informazioa eta aholkularitza emateko egindako eskaerak kontsulta gisa erregistratzen dira– 311 izan dira. Herritarrek Emakunderekin harremanetan jartzeko erabili dituen bideak, ondorio horietarako, honako hauek dira: telefonoz (227), aurrez aurre (32) eta idatziz –posta elektronikoz eta posta arruntez– (52).


Herritarrek Emakunderekin harremanetan jartzeko baliatu duten moduaren arabera kontsultak



Kontsulta eta erreklamazioen gaien maiztasuna dela eta, honako banaketa hau ikusten da:

- Jasotako eskaeren herena baino gehiago (% 38) **lan-eremukoak** dira, eta, zehazki, norberaren, familiaren eta laneko bizitza uztartzeko eskubideak baliatzeari buruzkoak, bai eta amatasunagatiko eta aitatasunagatiko beste tratu diskriminatzaile batzuei buruzkoak ere.
- **Komunikabideen eta publizitatearen eremua** dela eta, erreklamazioen kopuruak gora egin duela antzeman da, eta % 31 izan dira. Uste dugu gorakadak, batez ere, publizitatearen eta komunikazioaren erabilera ez-sexista erabiltzeko batzorde aholkularia / Begira sortu eta martxan jarri izanarekin duela zerikusia –360/2013 Dekretuak arautua–, bai eta Emakundek herritarrei eginiko komunikazio-jarduerekin ere.
- **Elkarte-eremuan** (% 4), eskaeren motiboa da jolas- eta kultura-sozietateetan emakumeen sarbidea mugatu ohi dituzten ustezko praktikak, bai eta barne-araudian jasotako edukiak ere.
- **Kirol-eremuan** (% 5,5), kexak, batez ere, emakumezko kirolariek jasotzen duten tratuarekin daude lotuta.
- Azkenik, "beste gai batzuk" atalean (% 21,5) Emakunderen eskumenekoak ez diren eskaerak sartu dira, besteak beste, dibortzioak, alarguntasun-pentsioak, etab.


Jarduketa-eremuaren arabera kontsultak



1.2 Artatutako kexak eta salaketak

2014an, herritarrek Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundean, guztira, 26 kexa eta 32 salaketa aurkeztu zituzten¹. Kexen kasuan, eraginik handiena antzeman duen eremua komunikabideena eta publizitatearena da, lan-eremuaren ostean; bertan, kontziliazioak mota horretako kexen bi herenak jasotzen ditu. Salaketak direla eta, antzeko banaketa ikusten da, eraginpeko eremuak direla eta.

Jarraian, banaketa aurkeztuko dugu, eraginpeko eremuen arabera:



Sarreran azaldu den bezala, Emakundek sexuagatiko bereizkeria-egoeretan herritarrak defendatzeko kasuan duen eskumena eremu pribatura mugatzen da, beraz, 2014. urtean sektore publikoari dagozkion kexa bakarra eta hiru salaketak Arartekoari bideratu zaizkio, sektore horretako erakunde eskudunari. Bestalde, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren jarduera-esparrua gainditzen duten kasuak –8 kexa eta 14 salaketa– Estatuko Emakume Erakundera bideratu dira.

Azkenik, aipatu beharra dago, oro har, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea ez dela sartu behar epai irmoa izan duten eta ebazpen judizialaren zain dauden kexen azterketan, ez eta pertsonen intimitateari edo sexuagatiko bazterkeria-egoerarekin zerikusirik ez duten gaiei buruzkoetan ere. Motibo horiengatik, 5 kexa eta 4 salaketa gutxietsi dira.

¹ Barne-prozedura hobetzeko, jasotako erreklamazioak kexa eta salaketetan sailkatzen dira. Kexatzat hartzen da sexuagatik ustez bazterkeriaren bat jasan duen pertsona batek edo pertsona-talde batek aurkeztutakoa; salaketatzat jotzen da sexuagatiko bazterkeriarik jasan gabe, hura gertatu dela salatzen duen pertsona batek edo pertsona-talde batek jarritakoa.

3. atalean, bideratutako eta gaitzetsitako kexak eta salaketak jasotzen dira.

2. MARKO JURIDIKOA ETA IKERTUTAKO KEXA ETA SALAKETEN TRATAMENDUA.

Sexuagatiko bereizkeria-egoeretan herritarrak defendatzeko jarduketaren marko juridikoa, gaur egun, zabala eta konplexua da. Jarraian, berdintasunerako eta sexuagatiko bereizkeriarik ezerako eskubidearen alde egitea babesten duten **oinarrizko arauen** aipamena dugu:

- Emakumearen aurkako Bazterkeria Modu guztiak Ezabatzeko Hitzarmena; NBEaren esparruan hartutako nazioarteko araua –horren bidez, estatu sinatzaileek, bitarteko egoki guztien bidez eta luzapenik gabe, emakumeen kontrako bereizkeria ezabatzeko politika jarraitzea hitzartu dute–. Hori horrela: “emakumearen aurkako bereizkeria” esamoldeak agertuko du sexuan oinarritutako bereizketa, bazterketa edo murrizketa oro, halakoen xedea edo ondorioa denean kaltetzea edo deuseztatzea (politika-, ekonomia-, gizarte- nahiz kultura-esparruetan, esparru zibilean edo beste edozein esparrutan) emakumeari aitortutako giza eskubide eta oinarrizko askatasunak, eta horien izatea eta egikaritza, haren egoera zibila gorabehera, gizonaren eta emakumearen arteko berdintasuna oinarri.
- 1978ko Espainiako Konstituzioa; horren 14. artikulua ezartzen du espainiarrak berdinak direla legearen aurrean, eta ezin dela sexuagatiko bazterkeria gailendu.
- Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Eraginkorrari buruzkoak, xedatzen du emakume eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioak edozein motatako diskriminazio baztertzen duela, zuzenekoa edo zeharkakoa izan, sexu arrazoiagatik eta, batez ere, amatasunaren, familia-betebeharrak hartzearen eta egoera zibilaren ondoriozkoak.
- Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoak –3/2012 Legeak aldatuta–, tratu-berdintasunaren printzipioaren barruan, pertsonen sexuan

oinarritutako bereizkeria oro debekatzen du, zuzena ala zeharkakoa izan eta horretarako erabiltzen den modua edozein dela ere.

2.1 Komunikabideak eta publizitatea

Arlo guztietan eragina duen araudi orokorraz gainera, eremu guztietarako araudi berezia ere badago. Hemen, memoria honi dagokion epean, erreklamazioaren motiboa sarrien ekarri duten eremuetan eragina daukaten arauen erreferentziak jasotzen dira.

Komunikabideak eta, batez ere, publizitatea izan dira kexaren edo salaketaren motibo nagusi. Eremu horretako araudi berezia honako lege-testuetan jasotzen da:

- 34/1988 Lege Orokorra, azaroaren 11koa, Publizitateari buruzkoa, pertsonaren duintasunaren aurka doan edo Konstituzioaren 14. artikuluan aitortutako balio eta eskubideak urratzen dituen publizitatea legez kanpokotzat jotzen duena; bertan, emakumeak modu iraingarrian erakusten dituen publizitatea adierazten da. Iragarki bat aurreko aurreikuspenaren barruan dagoela ulertuko da, baldin eta emakumeen gorputza edo gorputzaren zati batzuk produktuarekin loturarik izan gabe objektu soil gisa baino ez eta zuzenean erabiltzen dituenean, beren irudia geure araubideko oinarriak urratzen dituzten jokabide estereotipatuekin lotuta azaltzen denean eta, horren ondorioz, Genero-indarkeriaren Kontrako Babes Osorako Neurrien 1/2004 Lege Organikoak, abenduaren 28koak, aipatzen duen indarkeria sortzen laguntzen duenean.
- Genero-indarkeriaren Kontrako Babes Osorako Neurrien 1/2004 Lege Organikoak, abenduaren 28koak, 14. artikuluan ezartzen du komunikabideek gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna babestu eta zaindu behar dutela. Era berean xedatzen du emakumearen aurkako indarkeriaren gaineko informazioak hedatzean indarkeriaren biktima diren emakumeen eta euren seme-alaben giza eskubideak, askatasuna eta duintasuna defendatzea bermatuko dela.
- 3/2007 Lege Organikoak, martxoaren 22koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrari buruzkoa, halaber, agindu egiten die komunikabideei emakume eta gizonen arteko berdintasuna errespetatzea, edonolako bereizkeria-mota saihestuz.

- Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakume eta Gizonezkoen arteko berdintasunari buruzkoak, honako hau ezartzen du: «Debekatuta dago pertsonak beren sexuaren arabera duintasunari dagokionez nagusi edo menpeko gisa, edo sexu objektu huts gisa irudikatzen dituzten edo emakumeen kontrako indarkeria justifikatu, hutsal gisa aurkezten edo sustatzen duten publizitate iragarkiak egin, igorri eta erakustea».
- 360/2013 Dekretua, ekainaren 11koa, publizitatearen eta komunikazioaren erabilera ez sexistarako Aholku Batzordea –BEGIRA– arautzen duena. Organo horren eginkizuna Euskal Autonomia Erkidegoan errotutako hedabideen eta ohiko publizitate euskarrien bidez emandako publizitateari buruzko aholkularitza ematea eta azterketa egitea da, publizitatearen eta komunikazioaren esparruetan pertsonen sexuagatiko bereizkeria-mota oro erauzteko xedez.

Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak hala aginduta, publizitatearen eta komunikazioaren erabilera ez sexistarako Aholku Batzordeak –Begira–, 360/2013 Dekretuak arautuak, jarduera-esparrua publizitatera zabaldu du, euskarria edozein dela ere, bai eta titulartasun publikoko eta pribatuko gizarte-komunikabideetara ere, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikitako erakunde elkargokidearen izaera juridikoari eusten dio. Lankidetzako barne-markoa dago Herriarren Eskubideak Defendatzeko Arloaren eta Begira Batzordearen artean. Horrela, Herriarren Eskubideak Defendatzeko Arloa Begira Batzordearen euskarri da, eta herritarrek eta Batzordeak berak ofizioz jarritako kexak kudeatzen ditu.

BEGIRAK irizpide-dekalogo hartu du, komunikazioan eta publizitatean sexismoa antzeman eta zehazteko, herritarrentzako Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundean eskuragarri dagoen dekalogo. Dekalogo horretan ezarritako irizpideetatik abiatuta, edozein pertsona fisikok edo juridikok bidal diezaioke Begira Batzordeari edo institutuari berari ustez sexista den publizitateari edo komunikazioari buruzko erreklamazioa. Dekalogo, halaber, erreferentziazko dokumentua da aztertutako kexak aztertze eta balioesteko prozesuan.

Eremu honetan, erreklamazioez gainera, kontsultaren bat ere egin da. I20140021 espedienteari buruzkoa nabarmentzen da, garraiobide publikoan iragarri den merkataritza-zentro ezagun baten publizitate-kanpaina bategatik irekita; horrek Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari txostena eskatu dio, bere lokomozio-bitartekoetan egin beharreko publizitateari buruz. Emakunde-

Emakumearen Euskal Erakundeak emakumea "gauza bihurtzea" saihesteko gomendioa dela eta eskatutakoa jakinarazi dio.

Jarraian, erakunde honek eginiko ikerketa-prozeduraren eta kasu bakoitzean kontziliazio-proposamenen eta gomendioen oinarri diren kexa eta salaketen laburpena jaso da:

Espediente zk.: Q20140057.	
<i>Kexaren arrazoia</i>	Begira. Ustez eduki sexista duen programa batek iragarritako promo sexistari buruzko kexa.
<i>Emakunderen esku-hartzea</i>	Komunikabidearekin harremanetan jarri da.
<i>Eraitza</i>	Emakundek gomendioak eman ditu, EAEko komunikabide batek emandako programetan sexismoa saihesteko.

Espediente zk.: Q20140058.	
Kexaren arrazoia	Begira. EAEko komunikabide batek emandako programa bateko komentario sexistak.
Emakunderen esku-hartzea	Komunikabidearekin harremanetan jarri eta kexaren berri eman zaio, eta idatzia bidali zaio, gomendioekin batera.
Emaitza	Komunikabideak 4/2005 Legean sexu-bereizkeriari dagokionez ezarritakoa betetzeko konpromisoa hartu du.

Espediente zk.: Q20140061.	
Kexaren arrazoia	Begira. EAEko komunikabide batek unibertsitate neska ikasle gazteei=prostitutei buruz egin duen tratamendua,
Emakunderen esku-hartzea	Emakunde komunikabidearekin harremanetan jarri da eta idatzi bat bidali dio, salaketa bat dagoela eta haren motiboak jakinarazteko.
Emaitza	Komunikabideak erantzun dio berak gaitzetsi eta salatu egiten duela unibertsitateko neskato gazteen sexu-esplotazioa.

Espediente zk.: Q20140062	
Kexaren arrazoia	Begira. "Sugar babies" (gazte prostitutak) gizon aberatsak eta "eskuzabalak" neskato gazte pobreekin harremanetan jartzen dituen weba da, bientzako mesedetan.
Emakunderen esku-hartzea	Komunikabidearekin harremanetan jarri da.
Emaitza	Emakundek komunikabideari gomendatu dio zabalkundeetan tratamendu sexistarik ez egiteko.

Espediente zk.: Q20140072	
Kexaren arrazoia	Begira. EAEko komunikabide batek emandako produktu bateko iragarki sexista.
Emakunderen esku-hartzea	Ekoizpen-enpresarekin harremanetan jarri da eta iragarkia zuzentzeko eskatu dio.
Eraitza	Publizitatutako enpresak iragarkia kendu duela jakinarazi du.

Espediente zk.: Q20140099	
Kexaren arrazoia	Begira. EAEko komunikabide batek emakumezko kirolaria ezkutuan utzi du.
Emakunderen esku-hartzea	Komunikabidearekin harremanetan jarri da.
Eraitza	Akatsa antzeman da egindako salaketan.

Espediente zk.: Q20140101	
Kexaren arrazoia	Begira. Diskoteka bateko publizitate-kartela.
Emakunderen esku-hartzea	Diskoteka iragarlearekin harremanetan jarri da.
Eraitza	Diskotekak iragarkia kendu duela jakinarazi du.

Espediente zk.: Q20140104	
Kexaren arrazoia	Begira. "Neskatoentzako ipuinak" eta "mutikoentzako ipuinak" argitaratu dituen argitaletxea.
Emakunderen esku-hartzea	Argitaletxearekin harremanetan jarri da.
Eraitza	Gomendioak egin dizkio argitaletxeari, eduki sexistarik gabeko liburuak argitaratzeko.

Espediente zk.: Q20140112	
Kexaren arrazoia	Begira. Ikaslearen egunaren testuinguruan, neskato ikasleak ezkutuan uzten dira.
Emakunderen esku-hartzea	Erakunde antolatzailearekin harremanetan jarri da eta idatzia bidali dio.
Eraitza	Erakundeak ez dio oraindik Emakunderi erantzun. Eskatu egin dio.

Espediente zk.: D20140014	
Salaketaren arrazoia	Iragarki sexista garbiketa-sektorearen liburuxka batean.
Emakunderen esku-hartzea	Dagokion erakundearekin harremanetan jarri eta ikerketa-prozedura hasi du.
Eraitza	Erakundeak Emakunderi liburuxka aldatu duela jakinarazi dio.

Espediente zk.: D20140007	
Salaketaren arrazoia	Publizitate sexista laneko furgonetan.
Emakunderen esku-hartzea	Ikerketa-prozedura hasi du.
Eraitza	Enpresa iragarleari furgonetatik iragarki sexista kentzeko eskatu zaio; enpresak kenduko duela esan dio eta jarraipena egin zaio.

Espediente zk.: D20140040	
Salaketaren arrazoia	Komunikabide batean jokalarien emazteen argazkia agertzen da, "la otra delantera del Barça" izenburuarekin.
Emakunderen esku-hartzea	Gertakariaren berri eman zaio egileari.
Emaitza	Egileak adierazi du saiatu dela arreta erakartzen giro horretan sexismoa dagoela ohartarazteko.

2.2 Lan-eremua

Lan-eremua da kontsulta, salaketa eta kexa gehien duen bigarren eremua eta, horren barruan, haurdunaldiarekin, amatasunarekin eta edoskitzearekin lotutako eskubideak dira garrantzirik gehien duten kontuak, bai eta familia- eta lan-bizitza uztartzeko baimenei buruzkoak ere. Familia-etxeko enpleguari buruzko araudia ere kontsulta ugariren motibo da.

Hori horrela, aplikazio bereziko arau gisa honako hauek aipatuko ditugu:

- Langileen Estatutuaren 17. artikulua sexuagatiko zuzeneko edo zeharkako bereizkeria-egoerak dakartzaten araudi, hitzarmen, itun eta erabakien baliogabetasuna ezartzen du.
- Azaroaren 5eko 39/1999 Legeak, Langileen Familia eta Lan Bizitzaren Kontziliazioa sustatzekoak, garrantzi handia izan du, lan-eremuan sartutako legegintzako aldaketak direla eta, langileen kontziliazioa errazteko lan- eta familia-erantzukizunen artean.
- Abenduaren 16ko 56/2003 Legea, Enpleguari buruzkoa; horren 22bis artikulua nabarmendu behar dugu, enplegura jotzeko bereizkeria debekatzeari buruzkoa.
- 1620/2011 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, familia-etxeko zerbitzuaren izaera bereziko lan-harremana arautzen duena.

Eremu horri dagokionez, jarraian, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Herritarren Berdintasunerako eskubideak Defendatzeko Arloan jarritako kexa eta salaketan sintesia jasotzen da;

horien gaineko eta kasu bakoitzean egindako kontziliazio-proposamenen eta gomendioen gaineko ikerketa-prozedura zabaldu da.

Espediente zk.: Q20140023	
Kexaren arrazoia	Emakumezko langilearen amatasun-baja aprobetxatuta, zereginak, funtzioak eta kokapena aldatu zaizkio.
Emakunderen esku-hartzea	Aldeen arteko bitartekotza-lanak egin ditu. Bi aldeak batu eta langilearen eta enpresaren artean akordioa lortu du.
Eraitza	Enpresak langileen lehengo funtzioak eta kokapena errespetatuko ditu. Gomendioak egin dira amatasun-bajan dauden langileen eskubideak errespetatzeko.

Espediente zk.: Q20140091	
Kexaren arrazoia	Amatasun-bajaren ondoren, langilea beste lanpostu batera mugitu da.
Emakunderen esku-hartzea	Emakundek aldean arteko bitartekotza-lana egin du.
Eraitza	Langilearen eta enpresaren artean idatzitako eta sinatutako akordioa lortu da.

Espediente zk.: D20140018	
Salaketaren arrazoia	Lan-eskaintza. "Gizonezkoa" eskatzea. Hezitzailea.
Emakunderen esku-hartzea	Ikerketa-prozedura hasi da.
Eraitza	Emakundek gomendioak bidali dizkio erakunde iragartzaileari, lan-eremuan sexismoa saihesteko.

Espediente zk.: D20140033

Salaketaren arrazoia	Langileen uniformeak. Langileak=amantala eta langileak=uniforme osoa zenbait arroparekin.
Emakunderen esku-hartzea	Ikerketa-prozedura hasi da.
Eraitza	Enpresak berehala konpondu du emakumezko langileen eta gizonezkoenen uniformearen arteko desberdintasuna.

Espediente zk.: D20140041	
Salaketaren arrazoia	Komunikabidearen langileek salatu dute ez dietela uzten lanak beren bi abizenekin sinatzen (aitarena eta amarena). Aitaren abizenarekin baino ez dute sinatu behar, lehenengoa baita.
Emakunderen esku-hartzea	Komunikabidearekin harremanetan jarri da.
Eraitza	Komunikabideari legean ezarritakoa betetzeko gomendioa egin dio. Egileen arabera sinatzea onartu da.

Espediente zk.: D20140069	
Salaketaren arrazoia	Lan-eskaintza: "gizonezkoa" eskatzen da lan baterako. Elikagaien kalitateko teknikaria.
Emakunderen esku-hartzea	Ikerketa-prozedura hasi du.
Eraitza	Lan-eskaintza eginiko erakundeari antzemandako bazterkeria zuzentzeko eskatu dio eta hala egin du.

2.3 Kirol-eremua

Kirol-eremuan ere egin da kexa bat. Kirol-eremua dela eta, 3/2007 Lege Organikoak kirola garatzeko egitasmo publiko guztien diseinuan eta egikaritzean emakume eta gizonen arteko berdintasun errearen eta eraginkorraren irizpideak txertatzen dituela azpimarratzen du. Herritarren eskubideak Defendatzeko Arloan aurkeztutako salaketaren laburpena hauxe da:

Espediente zk.: Q20140081	
Kexaren arrazoia	Neskato gazte kirolari adingabeko bati Federazioak kadete kategorian gizonekin korrika egitea debekatu dio.
Emakunderen esku-hartzea	Ikerketa-prozedura hasi du. Aldeekin hitz egin du eta frogak eskatu dizkie.
Eraitza	Federazioak berehala konpondu du egindako bazterkeria.

3. BIDERATUTAKO ETA GUTXIETSITAKO KEXA ETA SALAKETAK

Aurretik aipatu dira, lehenengo puntuan, jasotako kexa eta/edo salaketak bideratzea edo gutxiespena eragin duten motiboak. Atal honetan, bideratutako edo gutxietsitako kexa edo salaketa bakoitza eragin duten kausei buruzko informazioa zehazten da.

3.1 Bideratutako eta gutxietsitako kexak

BIDERATUTAKOAK	
Erreferentzia-zk.	Herriaren defendatzaileari.
Q20140031	Abizenen ordena, zergatik beti 1. aitarena
	Emakumearen Institutuari
Q20140054	Garbiketa-produktuen publizitate sexista. Nork garbitzen du hobeto, emazteak ala amaginarrebak?
Q20140055	Prostituzio-etxearen publizitate-iragarkia. Emakume objektua.
Q20140056	Botika-gaien publizitatea. Emakumeentzako buruko minerako bitaminak eta pilulak.
Q20140088	Saltoki handien publizitate sexista. "El más pequeño para la suegra".
Q20140094	Altzari-katalogo baten publizitate sexista. Neskato printzesak eta mutil abenturazaleak.
Q20140097	Saltoki handien publizitate sexista. "Emakumezkoarentzako outleta" pala eta erratza.
Q20140098	Onlineko arropa-dendaren katalogo sexista. Neskatoentzako poltsa arrosa eta mutikoentzako grisa.
Q20140105	Prentsa-artikulu sexista. "Las mujeres hoy día pretenden hacer de todo, incluso ser policías".

ATZERA BOTA DIRENAK				
Erreferentzia-zk.	Gaia	U	EA	j
Q20140030	Arkitekto baten kexa, obra-buru baten aldetik tratu sexista jasotzeagatik			x

	ATZERA BOTA DIRENAK			
Erreferentzia-zk.	Gaia	U	EA	j
Q20140049	Haurdun dagoela jakinarazi ostean lanetik botatzearen ondoriozko kexa			x
Q20140079	Kirol-esatari baten komentario matxista salatu dute.	x		
Q20140089	Emakume haurdun baten kexa, enpresan jasotako bazterkeria-tratuaren ondorioz			x
Q20140086	Emakume bat ez kontratatzeagatiko kexa		x	

J: Judizializatua.

U: Alderdi auzi-jartzaileak uko egitea.

EA: Eskatutako datuak ez aurkeztea.

3.2 Bideratutako eta gutxietsitako salaketak

BIDERATUTAKOAK	
Erreferentzia-zk.	Arartekoari.
D20140016	Administrazio publiko baten formulario sexista. Emakumeentzako etxearen zaintzari buruzko galderak
D20140044	Hezkuntzako publizitate sexista, gizonetzkoen eta emakumezkoen lanbideak bereizita. Begira
	Emakumearen Institutuari
D20140003	Telefoniari buruzko iragarki sexista
D20140009	Estereotipo sexistak dituen telebistako seriea, gazteei zuzenduta
D20140011	Botika baten iragarki sexista aldizkari batean; bertan, emakumea erakargarri gisa erabiltzen da
D20140013	Elikagai baten publizitate-iragarki sexista; irudi falikoa emakume baten ondoan
D20140026	Ostalaritzako publizitate sexista, animalia sexuatua
D20140027	Emakumeentzako gutxiesgarriak diren itsasgarriak dituen elikagaiak
D20140032	Argaltzeko elikagai baten iragarki sexista
D20140038	Elikadurari buruzko iragarkia. Makillajerik gabeko emakumeak=kontserbagarririk eta koloratzailerik gabe
D20140039	Elikadurari buruzko iragarkia, emakumea elikagaia prestatzen
D20140050	Sexismoa gizonetzkoen modan; emakume bat agertzen da, ia biluzik
D20140051	Sexismoa modako marka batean; gizonetzkoak jantzita eta emakumea bikini jantzita
D20140052	Emakume bat biluzik eta gizon bat trajea jantzita duen aldizkari bateko

	azaleko iragarki sexista
D20140053	Klinika pribatuko iragarkia, emakumea erakargarri gisa erabilia
D20140070	Sexismoa emakume kirolarien arropetan

ATZERA BOTA DIRENAK			
Erreferentzia-zk.	Gaia	EA	GE
D20140022	Futbol-klub baten aurkako salaketa, emakumeentzat soilik sarrera doan izateagatik		x
D20140042	Gizonek emakumeen aldeko lasterketa batean parte hartu ezin izatearen ondoriozko salaketa		x
D20140066	Merkataritza-gune batean mezu sexistak dituzten kamiseten salmenta	x	
D20140083	Lan-eskaintza sexista, enplegu-zerbitzu publikoagatik		x
D20140085	Blog matxista baten salaketa	x	

GE Ez dago lotuta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen gaitasun-eremuarekin.

EA: Eskatutako datuak ez aurkeztea.

4. KOORDINAZIO- ETA LANKIDETZA-MEKANISMOAK

Beste erakunde batzuekiko harremana dela eta, 2014. urtean, harremanak eta bilerak izan dira erakunde publikoekin, lankidetzak-mekanismoak ezartzeko.

Harreman horien emaitza gisa, lankidetzak-hitzaia sinatu da Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearekin. Hitzarmen hori oinarritzen da koordinazio- eta lankidetzak-printzipioak direla erakunde horien arteko harremanak oinarritzeko funts, horien legezko arau erregulatzaileetatik berariaz ondorioztatzen den bezala. Helburua da erakundearen arteko koordinazioa arautzea, kontsulta, kexa eta/edo salaketak bideratzeari dagokionez, bere eskumeneko sektoretik datozen (publikoa edo pribatua) informazio-kanalak ezartzea sexu-bereizkeriako

egoeretan, kexa edo salaketa berdinetan baterako jarduketak adostea eta interesa eta erantzukizuna partekatzen den gaietan jarduketa komunetan lankidetzan jardutea eta horiek garatzea.